

Kamiseta poltsa bihurtu.mp3

Kamiseta zaharrak poltsa moderno bihurtu nahi dituzu? Ba, entzun ondo! Horretarako, erabiltzen ez dituzun kamiseta zaharrak beharko dituzu. Aukeratu gehien gustatzen zaizuna, eta ekin lanari!

Lehenik eta behin, mahukak moztu behar dizkiozu. Beste hainbeste egin beharko duzu lepoarekin. Bukatzen duzunean, emaiozu buelta eta moztu beheko tolesdura. Marraztu lerro zuzena kamisetaren beheko aldetik 8 zentimetrora; jarraian, moztu eta korapilatu beren artean zentimetro bateko tirak kamisetaren zabalera guztian, behealdea osorik itxiz. Bukatzeko, eman buelta berriro, eta listo, poltsa ederra izango duzu nahi duzun guztia eramateko!